

2014-2015 DENBORALDIA EAE

GRIPEAREN ZAINZA



EAE-KO OSPITALEKO MEDIKU JAGOLEEN SAREA

Sasoiko gripearen zaintza

Kasu larrien zaintza

**Gripe-sindromea lehen mailako
arretan**

Gripe-agerraldiak

AURKIBIDEA

1. Euskal Herriko Mediku Jagoleen Sarea.....	1
1.1. Sarrera.....	1
1.2. 2014-2015 gripe-denboraldiaren bilakaera Euskadin	1
1.3. Kasuen karakterizazioa	2
1.4. Zainketa mikrobiologikoa.....	4
1.5. Gripe-denboraldien konparazioa.....	6
1.6. Gripearean aurkako txertoaren eraginkortasunaren kalkulua	7
1.7. Gripearean epidemia-broteak	7
1.8. Gripea baieztatuta zuten ospitaleratutako kasu larriak	8
1.9. Gripe-sindromeak lehen mailako arretan izandako maiztasuna	9
2. Espainian Gripea Zaintzeko Sistema (ScVGE).	12
2.1. 2014-2015 denboraldiko gripe-jarduera	12
2.2. Datu biologikoak	12
2.3 Gripearean birusarekin lotutako broteak	14
2.4 Gripearean birusarekin ospitaleratutako kasu larri egiaztatuak	15
2.5 Gripearean aurkako txertoaren eraginkortasuna 2014-2015	17
3. Gripearean nazioarteko bilakaera	17
3.1. Ipar hemisferioa	17
3.2. Hego hemisferioa	18
4. OMEren aholkuak 2014-2015 denboraldiko gripearean aurkako txertoarentzako .	19
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	20

1. EAE-KO MEDIKU JAGOLEEN SAREA.

1.1.- Sarrera.

Aurtengo 2014-2015 denboraldian 49 medikuk parte hartu dute sarean (38 mediku orokor eta 11 pediatria), Osakidetzako Lehen Mailako Arretakoak, Donostiako Unibertsitate Ospitaleko biologia-laborategikoak eta EAEko Zainketa Epidemiologikoaren Unitateetakoak. Gainera, Lurralde bakoitzeko pertsona nagusientzako egoitza bateko medikuek ere parte hartzen dute.

Zainketa-denboraldia 2014. urteko 40. astetik (irailaren 29tik urriaren 5era) 2015eko 20. aстера (maiatzaren 11tik 17ra) bitartekoa izan zen.

Tasak kalkulatzeko izendatzaile gisa erabili den EAEko biztanleria-lagin adierazgarria mediku deklaratzailen kuotaren batura da. Aurtengo 2014-2015 denboraldian 65.220 pertsonak parte hartu dute guztira, hau da, EAEko biztanleriaren % 3,03k.


1.2. 2014-2015 gripe-denboraldiaren bilakaera Euskadin.

Zainketa Sareak gripe-sindromearen 1.802 kasu erregistratu ditu, eta denboraldi osorako tasa 3.194 kasukoa izan zen 100.000 biztanleko.

5/2015 astean izan zen gripearen eragin handiena (527,6 kasu 100.000 biztanleko). Atalase epidemikoa (77,21 kasu 100.000 biztanleko) 3/2015 astean gainditu zen (210,96 kasu 100.000 biztanleko), eta berriz ere maila basalera itzuli zen 12/2015 astean (39,63 kasu 100.000 biztanleko); horrek esan nahi du denboraldi epidemikoak bederatzi aste iraun zituela (1. irudia).

1. irudia. 2014-2015eko gripe-denboraldiaren bilakaera.

EAEko sare jagolea.



2/2015 astean erregistratu zen gorakadatik aurrera, gripearen intzidentziak gora egin zuen hiru astez. Horiek igarota, uhin epidemikoa behera egiten hasi zen.

43/2014 astean erregistratu zen denboraldiko lehenengo positiboa, AH3N2 motako birus bat.

1.3. Kasuen ezaugarriak.

2014-2015 denboraldian erregistratutako kasuen % 51,1 emakumeak ziren, % 46,5 gizonak ziren eta gainerako % 2,4ren kasuan ez zen datu hori jaso. Erregistratutako sintomen maiztasuna 1. taulan dago.

1. taula. Kasuen sintomen maiztasuna (%).

2014-2015 denboraldia. EAEko sare jagolea.

Sintomak	%
Sukarra edo sukar-puntua	%95,3
Ondoeza gorputz osoan	%85,3
Eztula.	%88,9
Sintomak bat-batean agertzea	%71,8
Buruko mina	%69,6
Mialgiak	%65,4
Eztarriko mina	%63,5
Hotzikarak	%51,3
Disnea	%11,3


Kasuen % 13,1ek arrisku-faktoreren bat edo beste dute. Kasuen % 7,5ek arnasaixotasun kronikoren bat zuen, % 2,2k zirkulazio-sistemako gaixotasuna, % 1,9k gaixotasun metabolikoak, % 0,8k immunoeskasia, % 0,6k gibealeko gaixotasuna, % 0,6k giltzurruneko gaixotasun kronikoa, eta % 0,6k obesitatea.

Arrisku-talderen bateko kide zelako gripearen kontrako txertoa hartzeko xede-populazioan zeudenen artean (302 kasu), % 68,9k ez zuen txertoa hartu.

Aurreko 2013-2014 denboraldiaren aldean, intzidentzia-tasa altuagoa izan zen adin-talde guztietan (2. irudia). 0-4 eta 5-14 urte arteko adin-taldeek jasan zuten gripearen eragin handiena (7.887 kasu eta 7.808 kasu erregistratu ziren 100.000 biztanleko, hurrenez hurren). Azken talde horretako intzidentzia 2,1 aldiz handiagoa izan zen, aurreko denboraldiarekin alderatuta.

2. irudia. Gripearearen intzidentzia adin-taldeka azken bost denboraldietan.

EAEko sare jagolea.




1.4. Zainketa mikrobiologikoa.

Sare jagoleak jaso eta Donostia Unibertsitate Ospitaleak analizatutako 684 laginen % 57,6k emaitza positiboa izan zuen gripe-birusean. Detekzio-tasarik altuena 7/2015 astean jaso zen, lagin positiboak % 82,4 izan zirelarik.


Isolatutako birusen % 61,2 A motakoak izan ziren, eta % 38,8 B motakoak (3. irudia). Azpitipatutako A motako birusetan AH3 motakoak nagusitu dira (% 88,8). Gainerakoak AH3N2 (% 7,5), A(H1N1)pdm09 (% 2,9) eta azpitipatu gabeko A motakoak (% 0,8) izan dira.

Mikrobiologia Zentro Nazionalak (CNM) Euskadiko sare jagoleko eta sare jagoletik kanpoko 69 lagin bereizi zituen genetikoki. 4. irudian ikus daiteke emaitza.

3. irudia - Isolatutako gripe-birusen azpimotak. Sare jagolea 2014-2015. EAE



4. irudia.- Gripe-birusaren genotipoak. Sare jagolekoak eta sare jagoletik kanpokoak.



Andui zirkulatzailak AH3N2 motako birusak ziren, A/HongKong/5738/2014 eta A/Switzerland/9715293 bezala genotipatuak Gripea Zaintzeko Espainiako Sare Jagolean (ScVGE). % 62ko desegokitasuna erakutsi zuten 2014-2015 sasoiko gripearen aurkako txertoak zuen anduiarekin (A/Texas/50/2012).

Erregistratutako isolamenduak adin-taldearen eta birus-azpimotaren arabera adierazita daude 2. taulan.

2. taula. Isolatutako birus-azpimotak adin-taldeka.


2014-2015 denboraldia. EAeko sare jagolea.

Adin-taldea	Birus-azpimota				
	A	AH3/AH3N2	A(H1N1)pdm09	B	Guztira
0-4 urte	0	20	1	11	32
5 urtetik 14 urtera bitartekoak	0	59	1	26	86
15 eta 24 urte artean	0	25	1	4	30
25-44 urte	0	53	0	52	105
45-64 urte	1	51	3	45	100
64 urtetik gorakoa	1	24	1	15	41
Guztira	2 (0,5%)	232 (58,9%)	7 (1,8%)	153 (38,8%)	394

1.5. Gripe-denboraldien konparazioa.

5. irudiak 2001-2002 eta 2014-2015 denboraldien arteko gripearen uhin epidemikoak eta denboraldi horietan isolatutako birusen azpimotak adierazten ditu.

5. irudia. Gripearen eta birus nagusien bilakaera EAEn. 2001-2015.



2014-2015 denboraldian, A(H3N2)/AH3 birusak eta B birusak izan ziren zirkulazioan, lehenengoak nagusi izan ziren arren, eta erregistratutako tasa handiena 2003-2004 denboraldiaren edo 2009-2010 denboraldi pandemikoaren tasen antzekoa izan zen.

1.6. Gripearen aurkako txertoaren eraginkortasunaren kalkulua.

Jagole-sareak Gripearen Aurkako Txertoaren Eraginkortasun Kasuak eta Kontrolak (cycEVA) azterlanaren zazpigarren edizioan parte hartu du, I-MOVE (Monitoring the influenza vaccine effectiveness in the European Union and European Economic Area) Europako proiektuaren barruan. Bertan, Espainiari dagokionez, zenbait gripearen jagole-sarek (188 medikuk, guztira) parte hartu dute (Balear Uharte, Gaztela eta Leon, Nafarroa, Euskadi, Errioxa eta Melillakoak), bai eta Mikrobiologia Zentro Nazionalak eta Epidemiologia Zentro Nazionalak ere, azken hori azterlanaren koordinatzaile gisa.

2015eko otsailean egindako aurretiko emaitzetan, txertaketa gomendatzen zaien taldeetan txertoaren eraginkortasuna %60 baino handiagoa izan zen birus-azpimota guztientzako.

Geroago, gripearen aurkako txertoaren eraginkortasuna gutxitu egin zela ikusi zen AH3N2 motako birusaren aurka, eta ez zuen efektu egokia lortu gripe-sasoian zehar eta txertaketatik igarotako denboraren menpe. B motako birusaren aurka, aldiz, eraginkortasuna mantendu zuen txertoak, oro har, gripe-sasoian zehar, neurrizko babes-efektuarekin.

Arrisku-taldeetan laborategiak baieztatutako infekzioaren aurka txertoak kasuen %50ean babesten du, eta horri esker, gripeak eragindako konplikazio ugari ekidin daitezke, gripe-infekzioak eragindako ospitaleratzeak eta heriotzak murriztuz; biztanleriaren osasunean oso inpaktu positiboa du gripearen aurkako txertoak.

1.7. Gripearen epidemia-broteak

3/2015 astean, AH3N2 influenza-birusak eragindako gripe-agerraldi bat izan zen Bizkaiko zaharren egoitza batean. Egoitza horretako 205 egoiliarren artetik, 24k izan zuten (eraso-tasa: % 12). Gainera, 178 langileen artetik beste 7 kasu ere erregistratu ziren (% 4ko eraso-tasa).

Gripeak jotako egoiliar guztiek zuten arrisku-faktoreen bat; horietatik 6 ospitaleratu egin behar izan zituzten. Ospitaleko batez besteko egonaldia 11 egunekoa izan zen (tarte: 6-21). Horietatik bat hil egin zen ospitaleratu eta zazpigarren egunera; 96 urte zituen, eta egoitzan gertatu berri zen Norobirus-agerraldi batek ere eragin zion; horretaz gain, arnasketako patologia eta patologia kardiobaskularra ere bazituen aurrez.

Gripeak jotako egoiliarren % 83k (20/24) jarrita zuen denboraldi honetako gripearen txertoa. Denboraldi honetan egoitzan % 95eko estaldura izan da txertoaren bidez. Gripeak jotako langileen artetik bakarrak zuen txertoa jarrita. Egoitzako osasun-arloko langileen % 21ek zuen txertoa jarrita, eta gainerako langileen % 14k.

Agerraldia bat etorri zen denboran gripe-jarduerak izan zuen hazkundearekin eta Bizkaiko lehen mailako arretako zentroetan gripe-sindromeak jota artatutako kontsulten gorakadarekin.

1.8. Gripea baieztatuta zuten ospitaleratutako kasu larriak.

Zaintza honetan Gurutzeta, Araba eta Donostiako Unibertsitate Ospitaleek eta Galdakaoko ospitaleak hartzen dute parte. 2014-2015 denboraldian, gripea zutela egiaztatu eta ospitaleratutako 130 kasu larri izan direla adierazi da (% 53,1 gizonak). Ospitaleratutakoen adina, batez beste, 63 urtekoa da (adin-tartea: 1-101 urte), eta 73 urteko mediana; % 66k, berriz, 64 urte baino gehiago dute. Kasuen % 44,6 ZIUn sartu behar izan zituzten (arrisku-faktoreak zituzten gehienek).

Arrisku-talderen batekoa izateagatik gripearen kontrako txertoa jartzeko gomendioa jasota zuten pazienteen % 40k ez zuen txertoa jarrita. 17 lagun hil dira (% 13,6), 60-101 urte bitartekoak (mediana, 78 urte); % 76,5, 74 urtetik gorakoak ziren, eta guztiek zuten gripearen konplikazioak izateko zenbait arrisku-faktore.

Adina alde batera utzita, erregistratutako kasuen % 75ek gripearen konplikazioak izateko arrisku-faktoreak zituen. 3. taulan erregistratutako kasuen arrisku-faktoreen eta konplikazioen banaketa ikusten da.

3. taula.- Arrisku-faktoreak eta konplikazioak (%).
Gripea baieztatuta duten ospitaleratutako kasuak. EAE 2014-15


Arrisku-faktoreak	%
Gaixotasun kardiobaskular kronikoa	41
Arnas gaixotasun kronikoa	32
Gaixotasun metabolikoa	22
Immunoeskasia	7
Giltzurrunetako gaixotasun kronikoa	9
Gaixotasun hepatico kronikoa	4
Gaixotasun onkologikoa	7
Obesitatea	3
Konplikazioak	%
Pneumonia	76
ADSA*	12
Bakterioek eragindako koinfekzioa	19
Organo anitzeko porrota	5

Emakume haurdun baten kasua baieztatu zen (haurdunaldiaren 35. astean).

Isolamenduetatik, % 75,4, A motako birusak izan dira, eta % 24,6, B motakoak. A motako birusen artean, % 59,2 AH3 izan dira, % 4,1 AH3N2, % 3,1 A(H1N1)pdm09 eta % 33,7 azpitipatu gabeko A motakoa.

64 urtetik gorako pertsonengan erregistratu ziren kasuen % 66,2 (6. irudia). Banaketa hori 2013-2014 denboraldikoaren oso bestelakoa da. Orduan, kasuen % 63,2 25 eta 64 urte arteko pertsonengan erregistratu ziren (Adin-patroi hori jaso zen ere A(H1N1)pdm09 azpi-motaren zirkulazioa nagusitu zen munduko beste lekuetan ere).

6. irudia. Gripearen birusarekin ospitaleratutako kasu larri egiaztatuak, sexuaren eta adin-taldearen arabera. 2014-2015 denboraldia.




1.9. Gripe-sindromeak lehen arretan izandako maiztasuna.

Lehen-mailako Arretan 47.488 kasu erregistratu ziren 2014-2015 denboraldian gripe-sindromearengatik (astelehenetik ostiralera 40/2014 eta 20/2015 astean bitartean), hau da, tasa metatua 2.179,4 kasukoa izan zuen 100.000 biztanleko. Tasarik handiena 5/2015 astean erregistratu zen, 100.000 biztanleko 400 kasuko tasarekin. Hori aurreko denboraldian erregistratutako tasaren oso gainera dago (7. irudia). Maiztasunaren igoera hori Mediku Jagoleen Sareak aste horretan (5/2015) erregistratutako tasa altuagoarekin bat dator.

7. irudia. Gripe-sindromearengatiko asteko maiztasun-tasa.


Osabide. 2013-2014 eta 2014-2015 denboraldiak.



Adin-taldeka, gripe-sindromearen tasa metaturik handiena 5 eta 14 urte artekoen adin-taldean erregistratu zen, 100.000 biztanleko 3.689 kasurekin. 0-4, 15-64 eta 65 urtetik gorako adin-taldeetan 2.408, 2.332 eta 975 kasu erregistratu ziren 100.000 biztanleko, hurrenez hurren. Jarduerarik handiena 5/2015 astean erregistratu zen, 5-14 urteko adin-taldean (1.002 kasu 100.000 biztanleko) (8. irudia).


8. irudia. Gripe-sindromearengatiko kontsulta-tasak adin-taldearen arabera.

Osabide. 2014-2015 denboraldia.



Lurralde historikoaren arabera, 5/2015 astean intzidentzia handieneko puntua gertatu zen ere: 100.000 biztanleko 422 kasu izan ziren Gipuzkoan, 399 kasu Bizkaian eta 352 kasu Araban (9. irudia).

9. irudia. Gripe-sindromearengatiko kontsulta-tasak, Lurraldeka.
Osabide. 2014-2015 denboraldia.



2. ESPAINIAN GRIPEA ZAINTEKO SISTEMA (ScVGE).

2.1. Gripe-jarduera (ScVGE).

2014-2015 denboraldian, Espainiako gripe-jarduera arina izan zen. Batez ere A(H3N2) gripe-birusaren zirkulazioa egon zen, eta B birusaren presentzia handitzen joan zen epidemiaren puntu gorenetik aurrera. Denboran bilakaera normala izan zuren gripearen uhin epidemiko bat erregistratu zen, eta jarduera goreneko puntua 2015eko urtarrilean izan zen.

Gripearen intzidentziak 2/2015 astean gaintu zuen denboraldi horretarako ezarri zen atalase basala (58,52 kasu 100.000 biztanleko). Intzidentziaren goreneko puntua 5/2015 astean izan zen (urtarrilaren 26tik otsailaren 1era), 100.000 biztanleko 348,1 kasurekin. Tasak atalase basalaren azpitik kokatu ziren berriz ere 12/2015 astetik aurrera. Epidemia-aldiak hamar asteko iraupena izan zuen beraz. Gripearen intentsitate-maila gaixotasun horren aurreko denboraldietako mailaren antzekoa izan zen.

Gripe gehien jasan zuten adin-taldeak 15 urtetik beherakok izan ziren, 5-14 eta 0-4 urteko adin-taldeentzako 100.000 biztanleko 854,06 eta 651,96 kasurekin, hurrenez hurren. Uhin epidemikoaren puntu gorenera 0-4 urte bitarteko umeen taldea iritsi zen lehenengo, 04/2015 astean, eta hurrengo astean gainerako taldeak, gripe-jarduera orokorraren puntu gorenarekin bat eginez.

2.2. Datu biologikoak (ScVGE).


2014-2015 denboraldian, gripearen zainketa-sareko lehen detekzioak Asturias eta Errioxako sareetan identifikatu ziren (41/2014 astean), jarraian Madril (42/2014 astea), Valentziako Erkidegoa eta Euskadi (43/2013) zeudela.

8.785 detekzio jakinarazi zitzaizkion SVGERi guztira, eta horietatik % 32 zainketa-iturrietatik zetozen, eta % 68 zainketakoak ez ziren iturrietatik.

Zainketa-sareko 2.779 detekzioetatik, 1.716 (% 61,8) A gripearen birusekoak ziren, 1.057 (% 38) B motako birusekoak eta 6 (% 0,2) C motako birusekoak. Azpimoten arabera, AH3N2 birusak izan ziren nagusi (10. irudia).

10. irudia - Zainketa-sareko gripe-birusaren detekzioak, birus-mota eta -azpimotaren arabera.

2014-2015 denboraldia. Espainia.



Iturria: CNE. Espainian Gripea Zaintzeko Sistema

Gainera, zainketakoak ez ziren iturriek 6.006 detekzio jakinarazi zituzten (A, % 76, B, % 24), horietatik % 89 A(H3N2) izan ziren, eta % 11 A(H1N1)pdm09, azpitipatutakoen artetik (% 41).

Birus-detekzio guztietatik % 71,6 A gripearen birusarenak izan ziren [azpitipatutakoen artean (% 55), % 92 A(H3N2) eta % 8 A(H1N1)pdm09], % 28,3 B gripearen birusarenak eta % 0,1 C gripearen birusarenak.


49/2014 astetik aurrera, birus nagusia A(H3N2) izan zen. 03/2015 astean izan zuen detekzio-tasarik handiena, eta hortik aurrera behera egiten hasi zen. Bestalde, 08/2015 astetik aurrera birus nagusia B motakoa izan da, denboraldi-amaierara arte (6. irudia).

Denboraldi osoko hemaglutininaren ikerketa batean oinarrituta, Mikrobiologia Zentro Nazionalaren OMERen Gripe Zentroak A(H3N2) azpimotako 299 birus bereizi ditu

genetikoki. Horietatik, A/Samara/73/2013 (3C.3 taldea) birusaren antzekoak dira 102, A/HongKong/5738/2014 (3C.2a taldea) birusaren antzekoak dira 148, eta A/Switzerland/9715293/2013 (3C.3a taldea) birusaren antzekoak dira 49 (11. figura).


11. irudia.- Gripearen birusaren karakterizazio genetikoak. 2014-15 denboraldia. Espainia.

A motako gripearen birusa



- A/HongKong/5738/2014(H3N2)
- A/Samara/73/2013(H3N2)
- A/Switzerland/9715293/2013(H3N2)
- A/SouthAfrica/3626/2013(H1N1)pdm

B motako gripearen birusa



- B/Phuket/3073/2013(linaje Yamaga)
- B/Brisbane/60/2018 (linaje Vitoria)

OMEren Londreseko zentro laguntzaileak European barrena dabiltzan birusei buruz egindako ikerketen arabera, A/Switzerland/9715293/2013 (H3N2) eta A/Hong Kong/5738/2014 (H3N2) talde genetikoek desberdintasun antigenikoak dituzte A/Texas/50/2012 txerto-birusarekin alderatuta.

Espainian, genetikoki bereizitako 310 H3N2 motako birusetatik 207 (% 66,8) talde horietako batekoak dira. A/SouthAfrica/3626/2013 eta B/Phuket/3073/2013 taldeetako birusei dagokienez, egindako ikerketek ez dute desberdintasun antigenikorik aurkitu txertoko birusen aldean.

Bestalde, Bartzelonako Ospitale Klinikoko OMEren Gripe Zentroak detektatu zuen hemaglutininaren genean H275Y mutazioa zuen denboraldiko birus bakarra (H1N1pdm09). Mutazio hori oseltamivir sendagaiarekiko erresistentziarekin lotzen da. Zainketa-sarekoa ez zen lagin batean detektatu zen.

2.3. Gripeareen birusarekin lotutako broteak (ScVGE).

Gripeareen birusaren 19 brote egiaztatu ziren zortzi autonomia-erkidegotan. Horietako % 58 egoitza geriatrikoetan izan ziren eta eragilea A(H3N2) birusa izan zela egiaztatu zen.

Denboraldian Espainian izan ziren gripe-birusen analisi filogenetikoak erakutsi du A(H3N2) birusen % 66,8k desberdintasun antigenikoak zituztela 2014-2015 denboraldiko ipar hemisferioko txertoen birusarekin. Alabaina, denboraldi honetako bakunak A(H1N1)pdm09 birusen kontra eta Yamagata motako B birusen kontra babesten zuten.


2.4. Gripea baieztatuta zuten ospitaleratutako kasu larriak (ScVGE).

2014-2015 denboraldian ospitaleratutako gripe-kasu larrien zainketan parte hartu zuten estatu guztiko 90 ospitalek, eta zainketapean izan ziren biztanleak 20.978.243 izan ziren orotara (Espainiako biztanleriaren % 44).

Gripea baieztatuta zuten ospitaleratutako 1.724 kasu larriren berri eman zen. Horien % 33 ZIUn ospitaleratu zituzten, eta % 16 hil egin ziren. Ospitaleratutako 1.724 pazienteen % 54 gizonak ziren, eta % 46 emakumeak. Ugaltzeko adinean (15-49 urte) zeuden 78 emakumeetatik, 19 (% 24) haurdun zeuden (% 61 haurdunaldiaren hirugarren hiruhilekoan eta % 33 bigarreanean).

12. irudian ikus daiteke gripea baieztatuta zuten ospitaleratutako kasu larrien banaketa adinaren arabera. Gripea baieztatuta zuten ospitaleratutako kasu larrien adin-mediana 69 urtekoa izan zen (kuartilarteko tartea: 50-81), eta kasu gehienak 64 urtetik gorakoen artean izan ziren (% 59), segidan 45-64 urte artekoak zeudelarik (% 21) (12. irudia).

12. irudia - Gripea baieztatuta zuten ospitaleratutako kasu larrien ehunekoa adin-taldeka. 2014-2015 denboraldia. Espainia.



Egiaztatutako gripe-kasu larriek eragindako ospitaleratzeetan 64 urtetik gorako taldekoak hil ziren batez ere. % 97k gripe-konplikazioen arrisku-faktoreen bat zuen eta % 53k denboraldiko gripearen aurkako txertoa hartuta zuen. Gripea baieztatuta zuten ospitaleratutako kasu larrien hilgarritasuna 2009ko pandemiatik neurtu den altuena izan da.

Pazienteen % 76,6ri A gripearen birusa detektatu zitzairen, % 23,3ri B birusa eta % 0,1i C birusa. Azpitipatutako A birusaren detekzioetatik (% 58), % 83 A(H3N2) birusekoak ziren, eta % 17 A(H1N1)pdm09 birusekoak. A(H1N1)pdm09 birusaren detekzioak ohikoagoak izan ziren 45-64 urtekoen artean (% 61). A(H3N2) birusarenak, ordez, maizago detektatu ziren 64 urtetik gorakoen artean (% 66).

Gripe-konplikazioen arrisku-faktoreen presentziari dagokionez, 1.095 kasutan (% 88) antzeman zen faktore horietakoren bat. Gripea baieztatuta zuten ospitaleratutako kasu larrietan, adinaren arabera desberdina zen konplikazio-faktoreen presentzia. Horrela, 14 urtetik gorako pazienteen % 92k (kuartilartekoa % 95: 90-94) arrisku-faktoreen bat zeukan, 15 urtetik beherakoen % 52ren aurrean (kuartilartekoa % 95: 42-62).

Honako hauek ziren arrisku-faktorerik ohikoenak 14 urtetik gorakoen artean: gaixotasun kardiobaskular kronikoa (% 38), biriketako gaixotasun kronikoa (% 32) eta diabetesa (% 30).

Hamabost urtetik beherakoen artean, aldiz, nabarmenenak biriketako gaixotasun kronikoa (% 9), gaixotasun kardiobaskular kronikoa (% 7) eta immunoeskasia (% 4) izan ziren.

Txertoa hartzeko taldeetako kide ziren kasuen artean, informazioa zegoen kasuetan, 577 pertsonak (% 52; kuartilartekoa % 95: 49-55) hartuta zuten gripearen aurkako txertoa.

2.5 Gripearen aurkako txertoaren eraginkortasuna 2014-2015

Espanian gripearen aurkako txertoak 2014-2015 denboraldian izan zuen eraginkortasunaren kalkuluak bi eredurekin lortu dira: cycEVA ikerketaren zazpigarren edizioa (Europako I-MOVE ikerketa multizentrikoaren Espainiako zatia), eta Espainian Gripea Zaintzeko Sistemaren bidez lortutako ScVGE ikerketa.

Txertoaren eraginkortasunaren azken kalkuluak gripe-epidemiaren goraldian egindako behaketak baino txikiagoak izan ziren (% 50 ingurukoak). Ikerketaren azken astean (16/2015 astea), txertoaren eraginkortasuna oso txikia izan zen A(H3N2) birusaren aurka, eta arina B birusaren aurka. Emaizta horiek iradokitzen dute gripe-denboraldiak aurrera egin ahala eta txertoa hartu zenetik denborak pasa ahala galtzen joan zela A(H3N2) birusaren aurka txertoak ematen duen babesaren eraginkortasunaren galera hori txertoa jaso eta hiru hilabete geroago agertzen da, normalean. Txertoak B birusaren kontra ematen duen babesaren galera posiblea txikiagoa da eta epidemiaren geroagoko faseetan gertatzen da.

3. GRIPEAREN NAZIOARTEKO BILAKAERA.

3.1. Ipar hemisferioa

Gripearen goreneko jarduera beste denboraldi batzuetan baino lehenago gertatu zen Ipar Amerikan (Kanadan, AEBn eta Mexikon); beste eskualde batzuetan, aldiz, 2015 hasieran gertatu zen. Oro har, gripe-jarduera handiagoa izan zen, aurreko denboraldiarekin alderatuz, Ipar Amerikan eta Europan, baina txikiagoa ekialdeko Asian, Afrika iparraldean eta Ekialde Hurbilean. Gripearen A(H3N2) birusak izan ziren nagusi eskualde gehienetan, eta B motako birusen isolamenduak handitu egin ziren sasoiko epidemiaren goraldiaren ondoren.

A(H3N2) birusa nagusi izan zen aurreko denboraldien antzekoa izan da 2014-2015 denboraldian neurtutako gaixotze- eta heriotza-tasen patroia, eta 64 urtetik gorako en larritasun kliniko handiagoarekin lotuta dago.

Identifikatu ziren A(H3N2) birus gehienek alde handiak zituzten 2014-2015 denboraldi honetako txertoa egiteko erabili zen anduiarekin alderatuta. Horrek eragina izan zuen txertoaren eraginkortasunaren kalkulu txikian, aurreko denboraldien aldean.

Birusen kontrako suszeptibilitateari dagokionez, 2014-2015 denboraldian jaso ziren influenza-birusetako oso gutxi erakutsi zuten neuraminidasaren inhibitzaileekiko sentsibilitate murriztua.

Gaixotze- eta heriotza-tasen kalkulu globalak egitea oso zaila da, informazio gehiena garatutako herrialdeetatik baino ez datorrelako.

3.2. Hego hemisferioa

Hego hemisferioko gripe-denboraldiaren epidemiologia eta biologia desberdina izan da birusen agerpenari eta zirkulazioari dagokienez.

Denboraldia 2014ko maiatzean hasi zen eta jarduera goreneko puntuak ekain/uztailean izan ziren Hego Amerikako Hego Konoan, Hegoafrikan eta Erdiko Amerikako eta Karibeko herrialde batzuetan. Australian eta Zeelanda Berrian denboraldia beranduago hasi zen, ekain erdialdean, eta jarduera goreneko puntua abuztuan erregistratu zen. Irailean edo urri hasieran amaitu zen denboraldia.

Hego Amerikako herrialde gehienetan A(H1N1)pdm09, A(H3N2) eta B. Influenza A(H3N2) birusen zirkulazio bateratua behatu zen. Australian eta Zeelanda Berrian, Influenza A(H1N1)pdm09 birusa izan zen ohikoena, baina bi herrialdeetako eremu batzuetan A(H3N2) birusa nagusitu zen.

Herrialde gehienetan, gaixotasunaren eragina 2013an erregistratu zenaren antzerakoa edo txikiagoa izan zen, Australian eta Paraguain izan ezik, bi herrialde horietan handiagoa izan baitzen eragina 2014ko denboraldian.

4. OME-REN AHOLKUAK 2013-2014 DENBORALDIKO GRIPEAREN AURKAKO TXERTOARENTZAKO

Otsailean, ohi bezala, OMEk gomendatu zuen 2015/2016 denboraldiko (ipar hemisferioko negua) gripearen aurkako txertoek osagai hauek izatea:

-A/California/7/2009/(H1N1)ren andui analogoa

-A/Switzerland/9715293/2013 (H3N2)ren andui analogoa

-B/Phuket/3073/2013ren andui analogoa (Yamagata motakoa)

Era berean, OMEk B gripearen bi andui barne hartzen dituzten txerto tetrabalentek aurreko hiru birusak eta B/Brisbane/60/2008ren (Victoria motakoa) antzeko anduia izatea gomendatzen du.

Esteka honen bidez OMEk argitaratutako dokumentu osoa kontsulta dezakezu.

5. Bibliografia-erreferentziak.

- European Influenza Surveillance Network (EISN)
<http://www.ecdc.europa.eu/en/activities/surveillance/EISN/Pages/index.aspx>
- FluNet. WHO
http://www.who.int/influenza/gisrs_laboratory/flunet/en/
- Global Influenza Surveillance and Response System (GISRS). WHO.
http://www.who.int/influenza/gisrs_laboratory/en/
- Espainiako Gripearen Zaintza Sistema (SVGE)
<http://vgripe.isciii.es/gripe/inicio.do>
- Weekly epidemiological record-Relevé épidémiologique hebdomadaire. No. 23, 2015, 90, 281–296 <http://www.who.int/wer>
- Weekly epidemiological record-Relevé épidémiologique hebdomadaire. No. 48, 2014, 89, 529–544 <http://www.who.int/wer>
- http://www.who.int/influenza/vaccines/virus/recommendations/201502_recommen-dation.pdf?ua=1